



**Arartekoaren 4/2018 Gomendio Orokorra, 2018ko urriaren 9koa.**

**Desgaituentzako aparkatze-txartelaren titularrek eskubidea dute aparkamendu mugatuko guneeetan (TAO) aparkatzeko, txartelari buruzko araudiak ezartzen dituen baldintzetan.**

## **I. Justifikazioa**

1. Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren zenbait titularrek Arartekora jo dute, [abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuak](#), txartela emateko eta erabiltzeko oinarrizko baldintzak arautzen dituenak, eta [martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuak](#), txartela Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan arautzen duenak, ezartzen duten txartelaren araudi berria udal-eremuan aplikatzeari buruzko kontu batzuen berri emateko.

Aipatu pertsonak azaldu dute, hain zuzen, aparkamendu mugatua (TAO) arautzen duten udal ordenantzak, oro har, ez dira egokitu aipatu dekretuetara, bertan aitortzen zaien eskubideari –joan-etorriak egiteko erabiltzen duten ibilgailua gunehorietan behar beste denboraz uzteko– dagokionez [abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuaren 6. eta 7.1.c) artikulua, eta martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuaren 6 eta 7.1.c) artikulua].

Era berean, pertsona horiek esan dute aparkamendu mugatuaren erregimena betetzen dela zaintzeko eta kontrolatzeko eta eremu horretan egiten diren arau-hausteak salatzeko funtzioak aginduta dituztenek aipaturiko Estatuko eta autonomiako arauekin bat ez datozen udal-ordenantza horiek aplikatzen jarraitzen dutela, oraindik ez direlako araubide horretara egokitu.

Azken kontu horri dagokionez, azaldu dute zenbait udalerritako TAOren zaindariak gunehori erabiltzeko gaitzen duen titulurik gabe aparkatzeagatik salatzen ari direla aipaturiko eskubidearen babesean aparkatze mugatuko guneeetan aparkatuta dauden ibilgailuak. Halaber, pertsona horiei jakinarazten dietela txartela ez dela titulu nahikoa joan-etorriak egiteko erabiltzen duten ibilgailua TAO gunean aparkatzeko.

Gaineratu dutenez, udalerrri batzuetan, udalak, TAO zerbitzua kudeatzen duen enpresak eta zaindarien eskubide horri buruz ematen duten informazioa kontraesankorra da eta ez dator bat indarrean dagoen araudiarekin.

Arartekora jo duten herritarrek adierazi dute oro har desadostasuna dagoela TAOren udal-arautegien eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela arautzen duen araudi berriaren artean. Gainera, TAOren araubidearen arau-hausteak zaintzeko eta salatzeko funtzioa aginduta dutenek ez dute jarraibide argirik aplikatu behar duten araudiari buruz, eta, horrez gain, udal-arauketa ugari daude. Horrek guztiak segurtasun-falta juridikoa eta



ziurgabetasuna sortzen dizkie txartelaren titularrei, udalerrri bakoitzean aplikatzen den araudia eta bakoitzean bete behar dituzten arauak direla eta. Azaltzen dutenez, deskribatzen duten egoerak eragozpen ugari sortzen dizkie, hala nola udaletara eta operadoreengana jo beharra –segurtasun juridiko bila–, eta behin eta berriro defendatzeko beharra, administrazioak aparkatzeko gaitzen duen titulurik gabe aparkatzeagatik ezartzen dizkien salaketan aurrean. Salaketak ez dira justifikatuak, pertsona horiek dagozkien eskubideak erabiltzen dituztelako.

Herritar horietako batek kontatu du ibilgailuan ohar bat ipini behar izan zuela, txartelarekin batera, aparkamendua txartelari buruzko araudiak aitortutako eskubidearen babespean egiten dela azaltzeko. Oharrean, gainera, aparkatzeko ordua eta arazoia jarri behar izan zituen.

Arartekoak, azaldutako arazoez sentsibilizatuta, egoera orokorra dela eta bereziki zaugarria den kolektiboaren eskubideei eragiten diela jakinda, egokitzat jo du behar den informazioa batzea, aparkatze-txartelaren alde kontraesankorrak arautzeko araudia –Estatukoa eta autonomikoa– Autonomia Erkidegoan nola aplikatzen den jakiteko eta horren aurrean jardun ahal izateko.

Horretarako, hainbat udalen laguntza eskatu du, honako informazio hau eman dezaten:

- a) Nola betetzen duten desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelaren titularrak diren pertsonen eskubidea –pertsona horiek joan-etorriak egiteko erabiltzen duten ibilgailua aparkamendu mugatuko gunean behar beste denboraz uzteko–, indarrean dauden txartelari buruzko arauak eskubide hori onartzen dietela kontuan hartuta.
- b) Zein jarduketa egin duen udalak TAOren udal araudia aipaturiko arauetara egokitzeko eta zein aurreikuspen dituen horri buruz.
- c) Zein jarraibide eman zaien aparkamendu mugatuko sistemen zainzaileei eta, hala badagokio, Udaltzaingoari, aipatutako eskubideari dagokionez.
- d) Mahai gainean jarritako arazoa aztertzeko interesgarri deritzaizuen beste edozein informazio.

Kontsulta hiru hiriburuetakoa udaletan egin da: [Bilbon](#), [Donostian](#) eta [Gasteizen](#), baita Bizkaiko [Getxoko](#) eta [Barakaldoko](#) udaletan, Gipuzkoako [Irungo](#) udalean eta Arabako [Laudio](#)ko udalean ere. Azken horiek aukeratzeko irizpideari dagokionez, lurralde bakoitzean biztanle gehien duten udalerririk hartu dira kontuan.

Halaber, [EUDEL](#)en (Euskadiko Udalen Elkartea) laguntza eskatu du Arartekoak, elkarteak gaiari buruz duen iritzia ezagutzeko, bere Estatutuetan ezarritako



helburuak –elkartekideak diren udalerrien interes orokorrak erakunde publikoen aurrean defendatzeko eta guztien ordezkari gisa aritzeko– aintzat hartuta.

2. Jasotako informazioak eta erakunde honek aparkamendu mugatuko sistemak arautzen dituzten udal ordenantzen<sup>1</sup> inguruan egin duen azterketak, bai kontsulta egin den udaletan, bai beste batzuetan, egiaztatzen dute arategiak heterogeneoak direla eta, oro har, ordenantzak ez direla desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelaren indarreko arauketara egokitu. Halaber, ezarritako arauen aniztasuna eta argitasunik eza dela eta, agerian utzi dira udalerrri bakoitzean zein araubide aplikatzen den seguru jakiteko zailtasunak. Araubide-tipologia askotarikoa da. Gainetik azalduta, guzti-guztiak azaltzeko asmorik gabe bada ere, honako kasu hauek aipa daitezke:

- Aparkatze-txartelaren titularrek joan-etorriak egiteko erabiltzen dituzten ibilgailuei txartelarekin aparkamendu mugatuko guneetan doan eta denbora-mugarik gabe aparkatzeko eskubidea onartzen dieten udalerrriak. Horrela da, adibidez, [Gasteizen](#), [Barakaldon](#) eta [Durangon](#).
- [Abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuak](#) [7.1.c) artikulua, hirugarren xedapen iragankorrari loturik] ezartzen duen araubide iragankorra oinarri hartuta, txartelaren titularrek joan-etorriak egiteko erabiltzen dituzten ibilgailuei aparkamendu mugatuko guneetan ordu erdiz doan (eta gero, araubide orokorra aplikatzen zaio aparkamenduari) aparkatzen uzten dieten udalerrriak. Adibidez, [Getxon](#), udalak emandako informazioaren arabera, nahiz eta [Aparkamendu Araupetuaren Udal Zerbitzuari buruzko Ordenantzak](#) honako aukera hau ere jasotzen duen: “*minusbaliodunen ibilgailuek*” gune zehatz baterako eta gehienez ere urte bateko balio-epea duen bereizgarria eskura dezakete, eskubidea subjektiboki definitzeko erabilitako terminoa hobeto zehaztu gabe (13. artikulua).
- Desgaitasuna duten pertsonentzat berriazko aparkamendu-araubidea ezartzen duten ordenantzak; araubidea udalak emandako bereizgarria dutenei bakarrik aplikatzen zaie, eta bereizgarri hori eskuratzeko, aparkatze-txartelaren titularra izateaz gain, zenbait baldintza bete behar dira, besteak beste, gidabaimena eduki, bereizgarria eramango duen ibilgailuaren titularra izan eta ibilgailu hori gidatu behar da. Aipatu araubidearen onuradunek denbora-mugarik gabe eta doan aparka dezakete.

Horrela da, adibidez, [Bilboko](#) udalerrian, non udalak jakinarazi duen aparkatze-txartelari buruzko indarreko araudiak aipatzen duen “*behar besteko denbora*” zehazteko, [Zirkulazioari buruzko Udal Ordenantzan](#) ezarritako irizpidea –“*ezinbesteko denbora*”tzat hartzen zuenari buruzkoa– aplikatzen duela. Txartelari buruzko aurreko autonomia-araudiarekin bat,

---

<sup>1</sup> Ordenantzen azterketa 2018ko abuztuaren 21ean amaitu zen, eta udal webguneetan dauden testuak hartu zituen oinarri.



baimenduta zegoen txartelaren titularrek toki debekatuetan denbora horretan aparkatzea ([abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuaren](#) 4.2. artikulua). Ordenantzak, oro har, ordubete dela ezarri da. Hala ere, erakunde honetara jo duten pertsonak emandako informazioaren arabera, TAO zerbitzua kudeatzen duen enpresak eta TAOren zainzaileek ez dute irizpide hori aplikatzen.

- Ordenantzak, non bai aparkatze-txartela, bai udalak desgaitasuna duten pertsonen emandako bereizgarria, aparkatzeko gaitzen duten tituluak diren. Udaleko bereizgarria eskuratzeko, besteak beste, titularrak udalerriko egoiliarra izan behar du, eta bereizgarria eramaten duen ibilgailua gidatu; gainera, ibilgailuak adierazitako desgaitasunaren arabera egokitua izan behar du, eta trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren udalerriko erroldan alta emanda egon, aparkatze-txartela edukitzeaz gain. Txartelak eta udaleko bereizgarriak eskubidea ematen dute –lehenengo kasuan, titularrak joan-etorriak egiteko erabiltzen duen ibilgailua, eta bigarrenean, dagokion tasa ordaindu ondoren, bereizgarria duen ibilgailua– araubide orokorraren bidez araututako gunetan denbora-mugarik gabe aparkatzeko. Hala ere, udalak ematen duen bereizgarriak egoiliarrentzat erreserbatutako gunetan doan aparkatzeko gaitzen du; txartelak, aldiz, ez du gunehorietan aparkatzeko eskubiderik ematen. Dirudienez, horrela gertatzen da [Donostiako Udalean, Aparkaldi Arautuaren Udal Zerbitzuari buruzko Ordenantza](#)ren arabera, [2016ko uztailaren 21ean onetsitako aldaketak](#) emandako idazketa berrian. Aldaketa txartelari buruzko araudia (7., 9., 13.bis eta 24. artikulua eta 20. artikulua eta hurrengoak) eta aparkamendu mugaturako ezarritako tasak indarrean jarri ondoren onetsi zen. Informazioa, hala ere, ezin izan da udalarekin kontrastatu, udalak ez baitio erantzun erakunde honek bidalitako lankidetzak-eskaerari.
- Seinaleztatutako tokietan, *“minusbaliatuen”* jabetzako ibilgailuak, udalak emandako bereizgarria daramatenak, titularra erabiltzen ari denean, aparkamendu mugatuaren erregimenetik at uzten dituzten ordenantzak.

Horrela gertatzen da, adibidez, [Irun Hiriko Trafiko eta Aparkalekuaren \(TAO\) Ordenantza](#), zeinek honela definitzen duen *“minusbaliatua”*: *“edozein arrazoi dela medio, eta Irungo udal-barrutian erroldatuta dagoen edo ez, Udal Mediku eta Osasun Zerbitzuen arabera, protesiaren edo makuluaren laguntzaz ere, behar den neurrian eta modu jarraituan ibiltzen uzten ez dioten mugaketa iraunkorrak dituen pertsona oro”* (12. artikulua).

[Irungo Udalak](#), bidalitako informazioan Ordenantza aipatu ez badu ere, azaldu du ez duela txartelaren gaur egungo araudiak onartzen duen eskubidea –aparkamendu mugatuko gunetan aparkatzeko– aplikatzen, zaila baita aipatu eskubidea legez definitzen duen *“behar besteko denbora”* zehaztea, eta ez dizkiela eman jarraibiderik aparkamendu mugatuaren erregimena betetzeaz arduratzen diren agenteei. Esan du, gainera, azterketa



egin ondoren, [Ezintasunak dituzten pertsonentzako aparkaleku txartel eta erreserba bereziak arautzen dituen udal ordenantza](#) aldatzeko asmoa duela, behar den gutxieneko denbora –aparkatzea baimenduta egongo den denbora, alegia– hirurogei minutukoa izango dela ezartzeko. Era berean, aipatu du udalerrian desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako aparkalekuen kopurua handiagoa dela legeak agindutakoa baino, eta hortaz, udalaren iritziz, jarraitu ahal izango diela txartelaren titularrei araututako aparkamenduko gunean dagokion tasa ordaintzeko eskatzen.

- [Mungia](#)ren kasuan bezala, seinaleztatutako tokietan aparkamendu mugatuaren erregimena honako ibilgailu hauei aplikatzea baztertzeko ordenantzak: *"minusbaliatuen jabetzako ibilgailuek edo bereziki egokitutako ibilgailuek, baldin eta horien jabeak dagokion zirkulazio baimenaren titular diren minusbaliatuak badira, eta titularrak erabiltzen baditu"* ([Mungia](#)ko [Udalerriko Bide Publiko Jakinetan Ibilgailuen Aparkamendu Mugatua Arautzeko Ordenantza](#)ren 5. artikulua).

Beste ordenantza batzuetan, hala nola [Bakioko Herri Bide Jakin Batzuetan Ibilgailuen Estazionamendua Mugatzeko eta Antolatzeko Kontrolerako Herri Zerbitzua Arautzen Dauan Ordenantzean](#), aipatzen da honako ibilgailu hauek ez dutela aparkamendu-tasarik ordainduko: *"Minusbaliatuen autoak edo bereziki egokituta dagozanak, zirkulatzeko baimenaren titularrak badira eta berriaz pertsona horreek erabilteko badira"* (5. artikulua).

[Zarauzko Udalerriko Bide Publiko Jakinetan Ibilgailuen Aparkamendua Arautzeko Ordenantza](#) da araudi horien beste aldaera bat. Izan ere, antzeko arau bat jasotzen du; kasu horretan ere, bazterketa aparkatzeagatik ordaintzen den tasari dago lotuta, baztertutako ibilgailuak honela identifikatzen badira ere: *"mugikortasun urriko pertsonen jabetzako ibilgailuak edo bereziki egokitutakoak"* (5. artikulua). Hala ere, Ordenantzak, aldi berean, aparkatzeko salbuespenezko erregimena ezartzen du *"mugikortasun urriko pertsonak"* gidatzen dituzten ibilgailuentzat. Horren arabera, udalak ematen duen bereizgarria badute, egoiliarrentzat ezarritako baldintza berberetan aparka dezakete. Erregimena desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelaren titularrei bakarrik aplikatzen zaie, baldin eta, gainera, ibilgailuaren titularrak badira, erroldatuta badaude eta trakzio mekanikoko ibilgailuen zergaren udalerriko erroldan alta eman badute (12. artikulua).

- Denboraz mugatutako aparkamendutik udalak *"minusbaliatuen"* jabetzako ibilgailuei ematen dien bereizgarria daramatenak (*"minusbaliatu"* terminoa hobeto zehaztu gabe, ezta bereizgarria nola eskuratzen den azaldu gabe) baztertzeko dituzten araudiak. Horixe da, adibidez, [Hondarribiaren](#) kasua ([Araututako Aparkamenduaren Udal Zerbitzuari buruzko Ordenantza](#)ren 9. eta 13. artikulua).



- Terminoa hobetu zehaztu gabe, "*minusbaliatuak*" aurretik parkimetroetan dagokion ordainketa egiteko betebeharretik salbuesten dituzten ordenantzak, [Tolosaren kasuan bezala \[Zirkulazioaren eta Denbora Mugatuko Aparkaldien Antolamenduko Arauen \(TAO\) 3. artikulua\]](#).
- Desgaitasuna duten pertsonen haientzat erreserbatuta ez dauden lekuetan aparkatzeari buruzko berariazko xedapenik jasotzen ez duten arautegiak, adibidez, [Arrasate](#) eta [Oñati](#) bezala.
- Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatuta dauden eta aparkamendu mugatuko guneean dauden aparkalekuak aparkamendu mugatuko sistematik kanpo uzten dituzten udalerriak, adibidez, [Getxo](#). Beste batzuek denbora-mugak ezartzen dituzte aparkaleku horietarako, hala nola [Donostia](#) eta [Zarautz](#). Beste batzuetan, erregimen orokorra aplikatzen zaio aparkaleku horietan aparkatzeari, adibidez, [Arrasate](#). Eta beste batzuek ez daukate autoa aparkaleku horietan uzteko erregimenari buruzko berariazko xedapenik beren araudietan.

Agerian geratuenez, udal batzuek ez diote Arartekoaren eskaerari erantzun. Txartelaren inguruko gaur egungo araubidearen aldean desberdinak diren arauak aplikatzen dituzten udalerriek, eskaerari erantzun diotenenek, ez dute aipatu aparkamendu mugatuari buruzko arauak betetzen direla zaintzeaz eta arau-hausteak salatzeaz arduratzen diren agenteei eman beharreko jarraibiderik, aipatu eskubideei dagokienez. Salbuespen bakarra [Irungo Udala](#) izan da, zeinen erantzuna lehenago aipatu baita. Era berean, aipatutako salbuespena salbu, ez dute azaldu, oro har, udal arauak araudi berrira egokitzeko asmorik.

Bestalde, jasotako informazioaren arabera, ez dirudi udalek txartelaren titularrei segurtasuna emateko neurriak hartu dituztenik, pertsona horiek dagokien eskubidea -aparkamendu mugatuko guneean behar beste denboraz aparkatzeko- erabiltzen jakin dezaten, aparkatze horrek denbora-muga bat duenean.

## II. Lege araubidea

### II.1. Testuinguru orokorra

[Konstituzioak](#) xedatzen du botere publikoek integrazio politika bat aurrera eramango dutela desgaitasuna duten pertsonen dagokienez, eta bereziki babestuko dituztela, aitortzen zaizkien eskubideak goza ditzaten (49. artikulua).

La [Nazio Batuen Biltzar Orokorra](#), 2006ko abenduaren 13an, [Pertsona desgaituen eskubideei buruzko Konbentzioa](#) onetsi zuen, pertsona horiei dagozkien giza eskubide guztiak eta oinarrizko askatasunak osotasunean izatea bultzatu, babestu eta bermatzeko (1. artikulua). Konbentzioa zenbait printzipio orokor ezartzen ditu



arlo horretan, hala nola bereizkeriarik eza, gizartean erabat eta eragingarritasunez parte hartzea eta modu horretara jardunez gizarteratzea, aukera-berdintasuna eta irisgarritasuna, besteak beste (3. artikulua). Konbentzioak, [Espainian 2008ko maiatzaren 3an indarrean jarri zenak](#), behartzen ditu estatu alderdiak Konbentzioon aitortutako eskubideak eragingarri egiteko neurri egoki guztiak hartzera, legegintzakoak, administratiboak nahiz beste izaera batekoak (4. artikulua).

[Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren Testu Bateginak](#), azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, zioen azalpenean adierazi bezala, erreferente nagusizat Konbentzioa izan duenak, besteak beste, aukera-berdintasunerako eskubidea bermatzea du helburu, baita pertsona horiek beren eskubideak egiaz eta eraginkortasunez baliatzea ere, gainerako herritarren baldintza berdinetan, betiere autonomia pertsonala, irisgarritasun unibertsala, enplegurako sarbidea, komunitatean barneratzea eta bizimodu beregaina bermatuz, eta orobat diskriminazio mota guztiak ezabatzea, Konstituzioarekin (9.2., 10., 14. eta 49. artikulua) eta Konbentzioarekin bat etorritik. Ezarritako printzipioen artean nabarmentzekoak dira, aztertzen ari den kontuarekin zerikusia dutelako, bizimodu beregaina, irisgarritasun unibertsala eta gizartean parte-hartze eta barneratze osoa eta eraginkorra. Printzipio horien eta aitortutako bizimodu beregaina eramateko eskubidearen ildotik, udalek desgaitasuna dela eta mugitzeko arazo larriak dituzten pertsonen autoak aparkatzea errazteko neurri egokiak onartu behar dituztela xedatzen du legeak (30. artikulua).

Ildo berean, [Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bateginak](#), urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartuak, agintzen die udalei aparkamendua mugatzeko neurriak ezartzerakoan bereziki aintzat har ditzaten desgaitasun baten ondorioz mugikortasuna urrituta duten eta ibilgailuak erabiltzen dituzten pertsonen premiak, pertsona horiek gizarteratzen laguntzeko [7.b) artikulua].

Ekintza positiboa desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteratzea eta laneratzea errazteko neurri egokia da, baita, ikuspegi orokorrean, irisgarritasuna sustatzeko [abenduaren 4ko 20/1997 Lege autonomikoan](#) jasotako araudiaren ardatza ere. Legearen arabera, irisgarritasuna funtsezko elementua da pertsona guztien gizarteratzea eta bizitza sozialean parte hartzea ahalbidetzeko (zioen azalpena eta 1. artikulua).

## ***II.2. Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartelaren arauketa***

Desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelaren gaur egungo araudia txartela igortzeko eta erabiltzeko oinarrizko baldintzak erregulatzen dituen [abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuan](#) dago jasota, baita txartela Euskal Autonomia Erkidegoan arautzeko [martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuan](#) ere.



Abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuaren hitzaurreak, dekretua onartzea justifikatze aldera, txartela ezarri aurretik zeuden arautegien aniztasuna aipatzen du, baita egoera horrek eragiten zuena ere: pertsona batek eskubide desberdinak izatea, bizitokiaren edo egiten dituen joan-etorrien helmugaren arabera. Araudia, hitzaurrean adierazitakoarekin bat, txartela erabiltzeko berdintasuna estatu osoan bermatuko duten oinarrizko baldintzak ezartzeko ematen da. Arauketa horrek, aldi berean, segurtasun juridikoa bermatu behar die txartelaren titularrei.

Errege Dekretuak joan-etorriak egiteko erabiltzen duten ibilgailua denbora mugatuko aparkamendu-guneetan behar beste denboraz aparkatzeko eskubidea aitortzen die herritar horiei, bai ibilgailua gidatzen dutenean, bai gidatzen ez dutenean, hirugarren xedapen iragankorretik ondorioztatzen denez, doan, araudi berria indarrean jarri zenean, dagokion ordenantzarekin bat, aparkamendu mugatua erabiltzeagatik tarifa aplikatzen zuten –txartelaren titularrak salbuetsi gabe– udalerrietan izan ezik. Udalerriak tarifa hori kobratzen jarrai dezake, baldin eta legeak agintzen duen aparkaleku erreserbatuen gutxienerako kopurua bermatzen badu [2., 6. eta 7.1.c) artikulua eta hirugarren xedapen iragankorra].

Abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuak oinarrizkotzat hartzen duen eskubidea –aparkamendu mugatuko guneetan aparkatzeko–, eskubideak baliatzerakoan berdintasuna bermatzen duten funtsezko baldintzetako bat da, [Konstituzio Auzitegiak](#) adierazi zuen bezala ([2017ko otsailaren 2ko 18/2017 Epaia](#)).

Edonola ere, Errege Dekretuak bermatzen du erabiltze baldintza eta araudi autonomikoetan edo tokikoetan ezarritako eskubideak aplikatuko zaizkiela txartelaren titularrei, baldin eta dekretuan aitortutakoak baino onuragarriagoak badira (6. artikulua).

Administrazio publiko eskudunek urtebeteko epea zuten, 2014ko abenduaren 24tik hasita, hau da, [abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretua](#) indarrean jarri zenetik aurrera, beren araudiak xedapen horretara egokitzeko (lehenengo xedapen iragankorra eta azken xedapenetako bigarrena).

Euskal Autonomia Erkidegoan, lehenago aipatutako [martxoaren 22ko 50/2016 Dekretua](#) arduratu da arautegi autonomikoa Estatuko oinarrizko araudira egokitzeaz.

2016ko apirilaren 13an indarrean jarri zen dekretuak aparkamendu mugatuko guneetan behar beste denboraz aparkatzeko eskubidea aitortzen die txartelaren titularrei, Estatuko oinarrizko araudian ezarritako modu berean [2., 6. eta 7.1.c) artikulua eta azken xedapenetako bigarrena].

Araudi biek, Estatukoak eta autonomikoak, [Europar Batasuneko Kontseiluak 1998ko ekainaren 4an onartutako gomendioa \(98/376/CE\)](#) aipatzen dute beren hitzaurreetan. Horren bidez, eskatu zitzaizen estatu kide guztiei beste estatu





kideetan igorritako pertsona desgaituentzako aparkatze-txartela onartzeko, eredu komunitario baten arabera, txartel horren titularrek Erkidegoaren lurralde osoan txartelak ematen dien eskubideak dakartzan erraztasunak gozatzeko aukera izan dezaten, dauden herrialdean indarrean dagoen araudiarekin bat.

Arautegi autonomiko berriak [abenduaren 5eko 256/2000 Dekretua](#) ordezkatu du Euskal Autonomia Erkidegoan. Azken horrek orduko aparkatze-txartel autonomikoa –desgaitasuna duten pertsonentzat– Europar Batasuneko eredu komunera egokitu zuen, aipatu gomendioari jarraikiz.

Abenduaren 5eko 256/2000 Dekretuak ezarritako txartelaren arauketak gaitzen zituen titularrak ibilgailua horretarako seinaleztatutako lekuetan, baita aparkatzea debekatuta zegoen lekuetan ere, "*ezinbesteko denboraz*" uzteko, salbuespen batzuekin (4.2. artikulua).

Hala ere, aurreko araudiak ez bezala, gaur egungoak ez ditu gaitzen txartela dituen pertsonak debekatutako tokietan aparkatzeko, baizik eta, txartela izanda ere, aparkatzea beti debekatuta dauden lekuak zehazten ditu, baita beste batzuk ere, non, txartela izanez gero, aparka daitekeen. Azken horien artean behar beste denboran aparkatzeko guneak daude, eta hori, aipatu bezala, txartelaren titularrari dagokion oinarritzko eskubidea da legearen arabera ([abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuaren](#) 7. artikulua eta [martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuaren](#) 7. artikulua). Hau da, aurreko arautegian ibilgailua uzteko "*ezinbesteko denbora*" hori debekatutako aparkalekuei zegoen lotuta; gaur egungo araudiak aipatzen duen "*behar besteko denbora*", aldiz, aparkamendu mugatuko guneei lotzen zaie, eta eskubide bat da, eta ez debekatutako aparkaleku batean aparkatzeko aukera. Izaera desberdin hori eta erabilitako adierazpenen arteko desberdintasuna direla medio, erakunde honen iritziz, ezin dira egoera biak berdintzat jo, eta ezin dira automatikoki estrapolatu debekatutako aparkalekuetan aparkatzeko "*ezinbesteko denbora*" zehazteko lehenago ezarri ziren irizpideak.

Laburbilduz, aparkatze-txartelari buruzko araudi berriak, salbuespenak salbuespen, onartu egiten du titularren eskubidea –joan-etorriak egiteko erabiltzen duten ibilgailua aparkamendu mugatuko guneetan behar beste denboraz eta doan aparkatzeko–, ibilgailua txartela duen pertsonaren titulartasuneko izan zein ez, ibilgailua txartelaren titularrak gidatu zein ez, eta udal araudiek ezarritako beste baldintzak betetzen dituen zein ez. Gainera, kasu guztietan, udal erregimen onuragarrienak aplikatzea bermatzen du eta, araudiaren arabera, txartela eskubide horiek ematen dituen titulua bihurtzen da.

### ***III. Arartekoak lehenago emandako iritzia***

Arartekoak behin baino gehiagotan adierazi du bere iritzia desgaitasuna duten pertsonen aparkamendu mugatuko guneetan aparkatzeko aukera emateko ezarri dituzten berariazko neurrietatik ezarritako gainerako baldintzak (hala nola udalerriko



edo udalerrria dagoen lurralde historikoko biztanlea izatea, dagokion bereizgarria eskuratzea, bereizgarria daraman ibilgailuaren jabea izatea, ibilgailua gidatzea eta abar) betetzen ez dituzten titularrak baztertzen dituzten udal araudien inguruan. Iritzi-emate horien adibide batzuk jartzeko, [urriaren 29ko 24/2004 Gomendioan](#) eta [Arartekoaren 2014R-1288-14 Ebazpenean, 2014ko urriaren 30ekoan](#), erakunde honek zenbait gomendio eman zizkion [Bilboko Udalari](#), desgaitasuna duten pertsonen ibilgailuak aparkamendu mugatuko guneeetan aparkatzeko erregimen berezian txartelaren titular guztiak sartzeko, erregimen horren erregulazioa berrikusteko eta beste txartelik ez eskatzeko.

Aipatu gomendioetan, aparkatze-txartelari buruzko gaur egungo araudia indarrean jarri zen aurretik eman zirela gogoan izanik, Arartekoak adierazi zuen [udal arautegiak](#) titularren artean egiten zuen desberdintasuna –tratamenduari dagokionez– arautegiak onartzen zituen erraztasunak izateko baldintza osagarriak betetzen zituzten ala ez aintzat hartuta, ez zeukala justifikazio objektibo eta bidezkorik, kontuan hartuta pertsona desgaituei aparkatzea errazteko garatzen den ekintza positiboko neurri orok pertsona desgaituak integrazteko helburua bete behar duela, eta desberdintasuna ezartzen zuten baldintzak ikuspegi horretatik justifikatzen ez zirela iritzita.

Era berean, Arartekoak agerian utzi zuen gomendioetan udal araudiak neurri handi batean hautsi egiten zuela [Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioak](#) iradoki zuen txartel bakarraren eredua, lehenago aipatutakoa, baita, gomendioarekin bat, gaur indargabetuta dagoen [abenduaen 5eko 256/2000 Dekretuak](#) araututako txartela ere, aparkatzeko erraztasunak txartelaren titular batzuei bakarrik ematen zizkielako. Gainera, behartzen zituen udal bereizgarria eskuratzeraz, eta ez zuen kontuan hartzen Europar Batasuneko estatu kideek txartela elkarri onartu behar ziotela, eta estatu horietan titulu gaitzaile bakarra eta nahikoa dela arlo horretan ezartzen diren ekintza positiboko neurrien onuradun izateko.

Era berean, erakunde honek kexa bat izapidetu bitartean eman zuen aipatu udal araudiari buruzko iritzia, txartelari buruzko arautegi berria indarrean jarri ondoren. Horri dagokionez, erakunde honen arabera, aparkamendu mugatuko guneeetan aparkatzeko eskubidea egotea, txartelaren erregulazio berriak titularrei onartzen diena eta funtsean udal araudiak pertsona horietako batzuei onartzen dien eskubidearekin bat datorrena, are gehiago uzten du agerian ez dagoela justifikaziorik, ezta arrazoirik ere, udal araudiak txartelaren titularrak desberdin tratatzeko, beste baldintza batzuk betetzearen edo ez betetzearen arabera.

Txartelaren arautegi berria indarrean jarrita formalki bereizten diren bi erregimen daudenez, bata txartelaren titularrentzat eta bestea udalak desgaitasuna duten pertsoneri ematen dien bereizgarria dutenentzat, aipatu kexan Arartekoak nabarmendu zuen [Bilboko Udalak](#) aparkamendu baldintzak argitu behar zituela, hau da, azaldu behar zuela noiz uzten dien txartelaren titularrei TAO gunean aparkatzen, pertsona horiei segurtasun juridikoa eta, horri dagokionez, ezinbesteko ziurtasuna emateko.



Txartelaren gaur egungo araudiak onartzen duen bermeak –titularrei udal araudi onuragarriena aplikatuko zaiela–, era berean, indargabetu egiten du pertsona batzuk eta besteak desberdin tratatzeko arrazoia, [Ordenantzak](#) ezarritakoa, baita udalak ematen duen bereizgarria egoteko arrazoia ere. Ondorioz, berme hori kontuan hartzen ez duten udal jarduketek urratu egiten dute [abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuaren](#) 6. artikuluan horren inguruan xedatutakoa.

Aipatu gogoetek indarrean dira eta estrapola daitezke beste udalerrri batzuetara, non desgaitasuna duten pertsonen ibilgailuak aparkatzea errazteko ezarritako berriazko neurriak txartelaren titular batzuei bakarrik aplikatzen zaizkien, hain zuzen, gainerako baldintzak betetzen dituztenei.

#### ***IV. Segurtasun juridikoaren eta legezketasunaren printzipioak***

[Konstituzioak](#) segurtasun juridikoaren eta legezketasunaren printzipioak bermatzen ditu (9.3. artikulua), eta xedatzen du administrazio publikoak Legea eta Zuzenbidea erabat betez jarduten duela (103. artikulua).

Bestalde, [urriaren 1eko 40/2015 Legeak](#), Sektore Publikoaren araubide Juridikoari buruzkoak (3. art.) eta [apirilaren 2ko 7/1985 Legeak](#), Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak (6. art.), berriz azpimarratu dute administrazio publikoak, oro har, eta batez ere toki-administrazioak, Legea eta Zuzenbidea erabat betez jardun behar duela.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, [Konstituzio Auzitegia](#)k honako hau adierazi du: *"La exigencia del artículo 9.3 relativa al principio de seguridad jurídica implica que el legislador debe perseguir la claridad y no la confusión normativa, debe procurar que acerca de la materia sobre la que legisle sepan los operadores jurídicos y los ciudadanos a qué atenerse, y debe huir de provocar situaciones objetivamente confusas (...). Hay que promover y buscar la certeza respecto a qué es Derecho y no, como en el caso ocurre, provocar juegos y relaciones entre normas como consecuencia de las cuales se introducen perplejidades difícilmente salvables respecto a la previsibilidad de cuál sea el Derecho aplicable, cuáles las consecuencias derivadas de las normas vigentes incluso cuáles sean éstas"* ([46/1990 Epaia, martxoaren 15ekoa, 4. oinarri juridikoa](#)).

Aplikatzeko zuzenbidearen inguruko ziurtasunak, era berean, ordenamendu juridikoa osatzen duten araudi-azpistema desberdinen artean antolamendu egokia eskatzen du.

Bestalde, segurtasun juridikoa erregulazio onaren printzipioetako bat da, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen [urriaren 1eko 39/2015](#)



[Legea](#)rekin bat, erregelamenduak egiteko ahala baliatzean printzipio horren arabera jokatu behar da (129. artikulua).

Printzipio horren arabera, legeari jarraikiz, araugintza-ekimena gauzatzean koherentzia gorde behar da gainerako ordenamendu juridikoarekin, izan Espainiakoa zein Europar Batasunekoa, araugintza-esparru egonkor, auresangarri, integratu, argi eta segurtasuneko bat sortzeko, horren hartzaileak diren pertsoneri arauak ezagutzeko eta ulertzeko, baita jarduteko eta erabakiak hartzeko erraztasunak emate aldera (129. artikulua).

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatzen du administrazioak aldizka berrikusi egingo duela bere araudia, egokiaren printzipioetara egokitzeko (130. artikulua).

Aztergaiaren harira, [abenduaren 12ko 1056/2014 Errege Dekretuak](#), desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela eskuratzeko eta erabiltzeko oinarrizko baldintzak arautzen dituenak, esan bezala, dekretua onartzea justifikatzerakoan, besteak beste, txartela ezarri aurretik zeuden arautegien aniztasuna dela eta, mugikortasun urriko pertsoneri segurtasun juridikoa bermatzeko beharra aipatzen du.

Halaber, agerian utzi denez, erakunde honek egindako analisiak –aparkamendu mugatua arautzen duten udal ordenantzak aztergai hartuta– ezagutzera eman du, oro har, arau horiek ez direla aipatutako errege-dekretuan eta txartela Euskal Autonomia Erkidegoan arautzeko [martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuan](#) ezarritako araudi berrira egokitu, horretarako legez ezarritako epea aspaldi igaro den arren.

Era berean, egiaztatu da kasu batzuetan egindako egokitzapena ez zela erabatekoa izan, adibidez, [Donostian](#), non, esan bezala, mantendu diren bi erregimen desberdin, eskubide desberdinekin: bata txartelaren titularrentzat eta bestea udalak emandako bereizgarria dutenentzat.

Hala ere, zehaztu behar da txartelaren titular guztiei denbora-mugarik gabe eta doan aparkatzeko eskubidea onartzen dieten udalek ez dutela beren araudia egokitu behar, kasu horietan udal erregulazioa bat baitator txartela arautzen duenarekin, titularren oinarrizko eskubideak onartzen dituelako eta txartelaren arautegiak ezarritako udal araudi onuragarriena aplikatzea bermatuta dagoelako.

Araudia egokitu ez izanaren ondorioz, Estatuko eta autonomia-erkidegoko araudi berriarekin bat ez datozen erregulazioak dituzten udalek, oro har, jarraitzen dute udal arauak aplikatzen, eta jardunbide horrek, aplikatu beharreko arauen kontrakoa izateaz gain, ziurgabetasun juridikoa sorrarazten die txartelaren titularrei, ez baitakite zein araudiri jo behar dioten, ezta udalerrri bakoitzak zein eskubide onartzen dizkien ere. Aipatu bezala, erakunde honek jasotako informazioaren arabera, udalerrri batzuetan, aparkamendu-sistemak erregulatzeko arauak betetzen direla zaintzeaz eta arau-hausteak salatzeaz arduratzen diren pertsonen araudia



aldatu egin dela ere ez dakite, eta ez dituzte erregulazio berriak aitortzen dituen eskubideak ezagutzen.

Ziurgabetasun juridikoa maila kezkarrietara iristen da aparkamendu mugatuko guneetan aparkatzeko eskubidea onartzen duten udalerrri batzuetan: beren araudiaren edukia bat dator, funtsean, txartelaren arautegi berriak agiri hori duten titular guztiei aitortzen dien eskubidearekin –gune horietan behar beste denboraz aparkatzeko–, baina, aldi berean, eskubide hori mugatu egiten du; izan ere, pertsona horietako batzuei bakarrik onartzen zaio eskubidea, baldin eta baldintza osagarriak betetzen badituzte eta desgaitasuna duten pertsonentzako aparkamenduaren bereizgarria –udalak emandakoa– badaukate. Beste kontu batzuek ere areagotzen dute ziurgabetasuna: pertsona desgaituek aparkamendu mugatuko guneetan aparkatzeko erregimenari buruzko udal erregulazioen aniztasuna, dagozkion ordenantzetan gaiari buruzko berariazko xedapenik eza, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkamenduaren bereizgarriak egotea, txartelaren titularrei eskubide batzuk eta udalak emandako bereizgarria dutenei beste batzuk aitortzea, erregulazio batzuen anbiguotasuna eta nahikoa ez izatea, eta, eskubideak eta titularrak definitzeko, termino heterogeneo, zehaztugabe eta desegokiak erabiltzea. Eta, azkenik, aparkatze-txartela lehenago erregulatzen zuen araudia oinarri hartuta, ezarritako irizpideak automatikoki hedatzea, txartelarekin debekatutako lekuetan aparkatzeko denbora zehazteko.

Estatuko oinarrizko araudiak ibilgailua aparkamendu mugatuko guneetan uzteko eskubidea zehazteko baliatzen duen *"behar beste denbora"* kontzeptuak berak ere eragiten du segurtasunik eza, kontzeptu juridiko zehaztugabea delako, eta ondorioz, kontsultatutako udaletako batek agerian utzi duenez, kasu bakoitzean zehaztu eta ebaluatu behar delako. Hala ere, zehaztu beharra dago, erakunde honen iritziz, kontzeptu hori zentzu zabalagoan interpretatu behar dela, eskubidea gauzatzearen alde, beste eskubideen zerbitzura dagoen tresna bat dela kontuan hartuta.

Gogoan izan behar da, bestaldetik, segurtasun juridikorik ezaren ondorioak larriago bihurtzen direla ahultasun bereziko egoeran dauden pertsonen kasuetan, mugikortasun urriko pertsonen kasuetan gertatzen den bezala.

Adierazitakoarekin bat etorrira, Arartekoak uste du aparkamendu mugatuko sistemak arautzeko udal ordenantzak desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela erregulatzen duen araudira egokitu behar direla, gehiago luzatu gabe, eta onartu behar direla araudi horrek ezarritako eskubideak: titularrak joan-etorriak egiteko erabiltzen duen ibilgailua aparkamendu mugatuko guneetan behar beste denboraz uzteko, eta onuragarriagoa den udal araudia aplikatzeko.

Era berean, Arartekoaren arabera, udalek une oro bermatu behar dute eskubide horiek aplikatzea.



Erregulazioak ugari direnez, udalerrri bakoitzean desgaitasuna duten pertsonak aparkamendu mugatuko guneetan aparkatzea arautzeko erregimenari buruz ematen den informazioak argi izan behar du, pertsona horiei gaiaren inguruan behar den ziurtasuna emateko eta segurtasun juridikoa bermatzeko.

Zeregin hori betetzean, saihestu behar dira desgaitasuna duten pertsonen, zuzenean edo zeharka, balio txikiagoa esleitzen dieten terminoak, hala nola "*minusbaliatua*" eta "*baliaezina*", ordenantza batzuetan agertzen direnak, eta horien ordez, pertsona desgaituen eskubideei buruzko [Konbentzioan](#) eta [desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorren](#) testu bateginean ezarritako printzipio eta helburuetara hobeto egokitzen diren adierazpenak erabili behar dira.

Hori guztia dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelari buruzko gaur egungo araudira egokitu ez den erregulazioaren bidez araututa dauden aparkamendu mugatuko sistemak ezarri dituzten Autonomia Erkidegoko udalei Arartekoak honako gomendio hau ematen die:

### GOMENDIO OROKORRA

Gehiago luzatu gabe, egoki ditzaten sistema horiek ezarri dituzten udal ordenantzak txartela igortzeko eta erabiltzeko oinarritzko baldintzak erregulatzen dituen [abenduarien 12ko 1056/2014 Errege Dekretuan](#) eta txartela Euskal Autonomia Erkidegoan arautzeko [martxoaren 22ko 50/2016 Dekretuan](#) ezarritako desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelari buruzko araudira.

Argi eta garbi zehatz ditzaten, txartelari buruzko araudia betez, desgaitasuna duten pertsonentzako txartelaren titularrek joan-etorriak egiteko erabiltzen dituzten ibilgailuak aparkamendu mugatuko guneetan uzteko baldintzak, pertsona horien segurtasun juridikoa eta ziurtasuna bermatzeko.

Behar diren neurriak har ditzaten, desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartelaren titularrek txartelaren erregulazio berriak aitortzen dizkien eskubideak – joan-etorriak egiteko erabiltzen duten ibilgailua aparkamendu mugatuko guneetan behar beste denboraz aparkatzeko eta onuragarriagoa den udal erregulazioa aplikatzeko– oztoporik gabe erabiltzea ahalbidetzeko.

Aparkamendu mugatuko sistemak arautzeko ordenantzak betetzen direla zaintzeaz eta arau-haustekak salatzeaz arduratzen diren agenteei aipatu eskubideei buruzko jarraibide argiak eman diezazkieten, eta gai horri buruzko informazio orokor argi eta zehatza eman dezaten, txartelaren titular bakoitzak, bizi den tokian bizi dela ere, jakin dezan seguru zein erregulazio aplikatzen den.



Informazio horretan erabiltzen den hizkera bat etor dadin [Pertsona desgaituen eskubideei buruzko Konbentzioan](#) eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen [azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan](#) ezarritako printzipio eta helburuekin, hau da, bazter ditzan pertsona horiei zuzenean edo zeharka balio txikiagoa esleitzen dieten terminoak.